



HITZAURRE GISA

Iñaki Martínez de Luna

Euskal Herriko Unibertsitatea

Helbide elektronikoa: i.martinezdeluna@euskalnet.net

Esku artean duzun ale honen muina ez da ohikoa BAT Aldizkarian. Aitortu behar da zerbaiten aurkezpena egin behar duenak jorratu beharreko gaia berezitzat eta ez ohikotzat hartzeko jor-
ra duela. Eta grina hori onartuta, zenbaki honen berezitasuna zertan datzan argitzera behartuta gaude, lehenbailehen. Kasu honetako berezitasunaren gakoa zera da: zenbakiaren ardatza HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarien deialdira aurkeztutako hiru lan hoberenak osatzen dute; edo, hobeto esanda, epaimahaiak hoberenak zirela ebatzi dituenak.

Zer da, baina, HAUSNARTU saria? Nork, noiz eta zer-nolako helburrekin sortu zen? HAUSNARTU Soziolinguistika Klusterrak 2008an abian jarri zuen lehiaketa da, euskal soziolinguistika teoriko eta metodologikoaren garapena eta berrikuntza bultzatzeko asmoarekin. Deialdia ekoizpen zientifikoetara mugatzen den arren, eremu horrezaz eman daitekeen adierarik malguenari eusten dio, eta, hortaz, parametro horien barruan ekarpenen bat egiten duten lan oro du jomuga egitasmo horrek. Irizpide zabal hori aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin buruturiko 2009ko edizioako hiru lanok saritu ditu epai-mahaiak: lehengo saria *Argiak eta itzalak euskararen lurraldean. Euskararen etxean, gazi-gozo izeneko lanari* egokitu zaio, egilea Dabid Anaut izanik; bigarrena, Jose M. Zendoiairen *Teoria ekonomikoaren ekarpenak soziolinguistika alorrean* lana izan da; hirugarrena, *Hizkuntza-plangintzekiko erresistentziak* *organizazioetan*, Urtzi Barrenetxeak egindakoa.

Arestian aipatu dugun adiera zientifiko malguaren erakusle ezin hobea dira lan horiek, hiruren artean eremu zabal-zabala betez. Gaiunera, erregistro edo estiloari erreparatuz ere aukera dibertsifikatua dugu: irakurlearen sentimenduak astintzen dituen lirika herrikoiarekin muga lausotua duen lan batetik abiatuta, adierazle-sistemen zorroztasunean gauzatzen den hizkuntza-plangintza gaia jorratzen duen beste bateraino, erdibidean zientzia ekonomikoaren kontzeptualizazioaren eta kalkulu matematikoen ur sakonetan murgilduz. Bistan da zaila baino zailagoa litzatekeela soziolinguistikako bilduma desberdinagorik aurkitzea.

Dabid Anauten idazlanera itzuliz, lirikotzat jo dezakegula esan dugu arestian, zaila baita testuaren hitzak irentsi ahala Leitza bailarako egoeraren deskribapenarekin liluraturik ez gelditzea. Ahalegin horren atzean dagoen asmoa, egileak berak esan bezala, haxe izan da: herri euskaldun jakin eta zehatz baten irudiak eskaintzea, datu objektibo, estatistika, grafiko eta ohikoez harago, egilearen eta bere bizipenen iragazkitik igaroz. Metodologia kualitatiboan oinarrituta eta *behaketa partehartzaile* bezala uler genezakeen teknikatik erakarrirako testua, zientifikoa eta irakurterraza da, biak ala biak. Eta eduki zientifiko bat ia testu literario bihurtzekak zera erakusten du: egileak *lumaz* baliatzeko duen iaioetasun aparta. Lorpena, ezin borobilagoa, zinez. Lanak, bestalde, badu ohikoa ez den ezaugarri bat: herri euskaldun bat aztergai hartzea. Izan ere, euskal soziolinguistikan gehien jorratzen diren gaiak eta aztertzen diren egoerak, euskara berreskuratze-ahaleginetan murgildurik dauden gunen soziolinguistikoko erdaldunduenak izaten dira, sarri askotan. Horretarako dauden arrazoiak ulergarriak izanagatik ere, erkidego euskaldun peto baten egoeraz eta bilakaeraren arriskuez jardutea —ez, lan eskerga eskatzen duten ia itzulezinezko egoerez—, estimatuko du irakurleak. Gainera, egileak erabat asmatu du, besteak beste, halako gunen euskaldun baten egoeraren argi-ilunez gogoeta emankor horri ekin dionean; izan ere, zonalde euskaldunek euskara biziberritzeko berezko abiapuntua izan beharko lukete, dinamika berreskuratzaila auzo-lur eta ukipen-gizataldeetara ondoren heda dadin. Horregatik, euskararen babesgune horien hurbilpen sakon, aberats eta zehatzari —Anauten lana den bezalakoa— eman zaion opariari guztiz egoki dela deritzogu.

Bigarren saria bereganatu duen Jose Maria Zendoia ez da hasiberria testuan jorratzen duen gaian; alegia, zientzia ekonomikoa euskal soziolinguistikara hurbiltzeko saioetan, duela urte batzuk ere urratsak emanak zituen. Ez dugu ezagutzen, alabaina, aitzindaritzara horren oihartzunik izan den beste egilerik edo lanik. Eta hobe genuke uste horretan oker izatea, gai-nontzeko giza eta gizarte zientziek bezala, ekonomiak ere zeresan handia baitu euskararen normalkuntzan, Zendoia ahaleginak ongi erakusten duen bezala. Areago, kezkatzeko motiboa litzateke egia balitz ekonomia-

ren ikuspuntua soziolinguistikara ekarriz beste lanik ez dela egin. Izan ere, gure hizkuntzaren berreskurapenak ez du bide oparorik egingo ekonomia-
ren legeetatik at, gizarte garaikide honen ardatz nagusia ekonomia baita. Alde horretatik begiratuta, bikoitza da Zendoiairen ekarpena: bat, edukia bera; bestea, ekonomia aplikatua soziolinguistikara biltzeko ahalegina beste behin egitea. Lanaren edukiari erreparatuz, esan dezagun egileak kasu jakin batez baliatu dela lana burutzeko, testu-liburuen argitalpenarena, hain zuzen ere. Adibide horren eskutik ehundu dituen planteamendu eta algoritmo matematikoen bitartez, eta marraztu dituen grafikoen laguntzaz, irakaspen bat landu du euskalgintzan diharduten edozein sektoretako enpresei zuzenduta: merkatuan lehiatzeko edo akordioetara iristeko, euren estrategiak birplanteatu beharraz, batez ere, globalizazioaren zurrumbiloan eta krisialdi ekonomiko larrian murgildurik gauden garaiotan.

Jauzi handi xamarra eginez, berriz ere, hirugarren saritua den Urtzi Barrenetxearen lana aipatzera iritsi gara: hizkuntza-aldaketaren aurrean organizazioetan agertu ohi diren erresistentziak aztertzea, alegia. Lanke-
ta eta analisi horren joko-zelaia, beraz, organizazioetako eraldaketak dira, hizkuntza-plangintzak ere eraldaketa-plangintzak direla onartzen duen axiomatik abiatuta. Egileak, *ikuspegi sistemiko* eta *erakunde-portuera* kontzeptuak bildu eta azaltzeari ekin dio lehenengo ataletan. Ondoren, organ-
nizazioen eraldaketan agertzen diren gorabeheretan murgiltzen da egile-
lea, erakundeek duten konplexutasuna kontuan hartuta. Konplexutasun hori dela-eta, prozesu osoaren atzean dauden aldaketarako erresistentzi anitzak gogorarazten dizkigu egileak, eta argi uzten digu halakoei guz-
tiei erreparatzea ezinbestekoa dela, plangintzak arrakasta izango badu. Horren oinarri teoriko sendotik hasitako lanak badu jarraipen aplikatu egokia ere, informazioaren bilketarako inkesta erabiliz; lanabes horren diseinuan ez da hutsetik abiatzen, baizik eta beste egoera eta beste lekue-
tan erabiliak izan diren materialak baliatuz. Lan horren guztiaren emai-
tzak eta ondorioak guztiz balekoak dira hizkuntza-aldaketa erakunderen batetan eragin nahi duen ororentzat. Areago, susmoa dugu esfortzu horren balioa lan honetan ez dela agortuko, bide beretik aurrera egin nahi izango duen orok makulu ezin egokiagoa aurki dezakeelako Barrenetxe-
aren izerdiari esker eskuratutako idazlan honetan.

Hiru lan horiek duten interes handia ikusita, zalantza izpirik ez dago 2009ko HUSNARTU sariaren emaitza oparoa bezain emankorra izan dela; argi gelditzen da sariaren bigarren edizio horrek euskal soziolin-
guistika teorikoaren eta metodologikoaren garapena eta berrikuntza bul-
tatzeko asmoa erabat bete du.

Hala ere, hemen ez da bukatzen zenbaki honen informazio-emaria, esandako saritik hartutako lanak ez ezik, iturri ezberdin batetik edaten

duen beste artikulua baten ekarpena badugulako, oraindik ere. Laugarren artikulua oinarria 15 urtez gorako biztanleriaren lagin bati egindako inkesta da, ikerlan horren helburua *“oinarri eta helburua hizkuntzen arteko bizikidetasuna nolakoa den”* ezagutzea zelarik. Hortik abiatuta, Gipuzkoako egoera soziolinguistikoaz sei lagunek (Edorta Bergua, Estepan Plazaola, David Izaga, Garbiñe Loiarte, Nekane Jauregi eta Joxpi Irastortza) landu duten 2007ko gipuzkoarren hizkuntza pertzepzioen inkesta kuantitatiboren interpretazioa izenburuko artikulua dugu. Egileek, hasiera-hasieratik ohartarazten digute gipuzkoarren pertzepzioetatik ateratako datuen analisien interpretazio posible bat baino ez dutela egin, haienak ez bezalako beste ondorio batzuk ere atera litezkeela, zuhurtzi osoz gaztigatuz. Datuetatik eratorritako ondorioak hiru multzotan sailkatzen dituzte egileek, ulergarritasunaren mesedetan. Datu horiek, transmititzen duten informazioaren balioa dela medio, euskaltzale orori gomendatzeko modukoak dira. Azken buruan, Euskal Herriko lurralde euskaldunena den Gipuzkoako joerek ongi erakasten digute beste lurralde erdaldunagoetan ere —aldeak alde— euskararen normalkuntzan topa genitzakeen aurrerapausoen zein oztopoen erreferentziak; alegia, euskararen berreskurapen ahaleginetan etenik gabe jada agertzen (edo aurrerago agertuko) zaizkigun argi-ilunak.■

